

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak negozioak etorkizun arrakastatsu eta oparoa izan dezan egin beharreko jarduerak dira, horietako batzuk kanpoko enpresen esku utz ditzakegu, eta beste batzuk, aldiz, ez. Gure enpresa negozio arrakastatsua bihurtu dadin, barneko jarduerak eta kanpoko jarduerak elkarren osagarri izan behar dira. Enpresa ondo funtzionantzeko publizitate arrakastatsua eta salmenta ona behar da.

Barneko jarduerak

Barneko jardueren artean, bezeroarentzako arreta ezinbestekoa da, hurbiltasuna eta kalitatezko esperientzia bermatzeko. Hileta zerbitzuen antolaketa eta gorpuaren prestaketa arreta handiz eta profesionaltasunez egin behar dira, familiaren beharrak eta sentimenduak beti errespetatuz. Zeremonien koordinazioa eta gainbegiratzea zehatza eta zorrotza izan behar da, ekitaldi bakoitza familiaren nahi eta tradizioetara egokituz. Laguntza emozionala garrantzitsua da doluan dauden pertsonen sostengua emateko eta esperientzia osoagoa eskaintzeko. Administrazio eta kudeaketa juridikoa ezinbestekoa da lege-prozedura guztiak errazteko eta familiaren zama arintzeko. Nahiz eta eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak garrantzitsuak izan, orain arte aipatutako jarduera hauek dute lehentasuna.



Lehentasuneko zerbitzuetaz gain, hauek ere ezinbestekoak dira: Marketina eta publizitatea tresna estrategikoak dira zerbitzuen ikusgarritasuna areagotzeko eta merkatuan kokapen egokia lortzeko. Instalazioen mantentzea eta baliabideen kudeaketa modu eraginkorrean egiteak espazio atseginak eta tresna egokiak bermatzea ahaleginduko digu. Azkenik, langileen etengabeko prestakuntza beharrezkoa da zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta berrikuntzetara egokitzeko.

Kanpoko jarduerak

Kanpoko jardueretan jarduerak garatuko dituzten enprekin lankidetzan estuan aritzea da giltza. Lore dekorazioa, zerbitzu honen alde estetikoa indartzeko ezinbestekoa da, eta catering zerbitzuak familiarekin partekatzen diren uneetan

erosotasuna eskaintzen lagunduko digu. Ekitaldi-espazioen alokairua eta espazio egokiak aurkitzea beharrezkoa da familia bakoitzaren nahiak asetzeko. Gorpuen garraio espezializatua zerbitzuaren profesionaltasunaren eta eraginkortasunaren parte da. Zerbitzu kultural eta musikalen eskaintzak zeremonia bakoitza pertsonalizatzea ahalbidetzen du, eta laguntza psikologikoa dolua kudeatzeko prozesua errazteko eta familiaren ongizatea bermatzeko funtsezkoa da. Jarduera horien guztien bidez, zerbitzu integrala eta kalitatezkoa eskaini ahalko dugu, bezeroen behar emozional eta praktikoko guztiak asetzeko.



Arazoak konpontzea

Funtsezko jarduerak enpresaren funtsionamendu egokia bermatzea bilatzen dute baina, hala ere, arazoak sortu daitezke gure zerbitzuak eskaintzeko momentuan. Kasu horietarako, aseguru bat izango dugu kontratatuta eta diru kopuru bat gordeta izango dugu arazoek sortutako diru-galerei aurre egiteko. Gainera, kasuaren arabera, arlo desberdinetako adituekin arituko gara elkarlanean arazoa haiek kudeatu dezaten edo aholkularitza eman diezaguten.